



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 7a

2 ZK.

### A U R K I B I D E A

E SAILA:

**Jabeldurak eta Mozioak:**

—Mozioa, Nafarroako Gobernua ehiza-debekualdiak aldatzera prematzen duena, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (3. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Bazozainei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (4. or.).
- Lotzako putzuari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (4. or.).
- Oinarritzko Osasun Laguntzan gaiso diabetikoari arreta egiteko programari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (5. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren etorkizuneko Kontratuei buruzko Legea prestatze-mailari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (6. or.).
- Tamaina txikiko lursailak, aisialdiko baratzak deituak, erabili eta gozatzeari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (7. or.).
- CACECO instalazioen inguruei eta Club Atlético Osasunari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (7. or.).
- Eskola Kontseiluak osatzeko hautabideari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (8. or.).
- Iruñea-Lizarra N-111 errepideko 12-13 kilometroen arteko eskubiko bazterbidearen egoerari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (9. or.).
- Errepideetan dauden merkataritza-adierazleei buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (9. or.).
- Interneten bidezko zenbait informazio pornografikoz biztanleriari ohartarazteko neurriei buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (10. or.).
- Telefonia mugikorraren instalazioei buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (10. or.).
- Egin berri diren nekazaritza bideek sortzen duten ikusizko eraginari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egina (11. or.).

- Udalek telefonia mugikorrek instalazioak paratzeko lurzorua uzteari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egin (11. or.).
- Agustinosen industri poligonoan sortzen ari den zabortegiari buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egin (12. or.).
- Eperrekin zerikusirik duten hainbat gorabeherari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egin (12. or.).
- Ingurugiro Departamentuko biologoek dauzkaten eginkizunei buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egin (13. or.).
- Zenbait uso-espezieren ehizaldiari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egin (13. or.).
- Basurdearen ehizaldiari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egin (14. or.).
- Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Tafallatik igarotzen den Nafarroako Autobideko zatiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

**G SAILA:****Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko bi lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Gainditu dutenen zerrenda (17. or.).

---

**E Saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

## **Mozioa, Nafarroako Gobernua ehiza-debekualdiak aldatzera premiatzen duena**

### *ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak aurkeztu duen Nafarroako Gobernua ehiza-debekualdiak aldatzera premiatzen duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Eregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, mozioa eztabaidatuko den bilkura-egunaren aurreko eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layana Nafarroako Demokraten Elkarguneko Foru Parlamentari jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenarekin bat etorritik, Parlamentuko Mahaiaren aurrean honako mozio hau aurkezten du:

Orain baino lehen ere beste hainbat aldiz Nafarroako Gobernuak Parlamentu honen aurrean aurkeztu izan ditu, eztabaidatu eta bozkatzeko, zenbait espezie zinegetiko ehizatzeke aldiak arautzeko erabakiak. Halaber, beste zenbait Komunitate Autonomotan, baita gurearekin muga egiten duen zenbaitetan ere, Foru Komunitatekoak bezalakoak ez diren ehizatzeke aldiak dauzkate ezarriak; hori horrela, batzuetan paradoxa honen aurrean aurkitzen gara: Nafarroan urtaldi jakin batean ehizarako debekatuta dauden espe-

zieak lasai asko bota daitezkeela gure lurraldetik metro gutxitara.

Nafarroak ehiza kontuen gainean legeak egiteko eskumena duelarik, Parlamentuari zilegi zaio Gobernua premiatzea Biltzarrak ezartzen duen irizpidearen arabera legeak garatzera. Horregatik eztabaida daiteke ehizararako debekualdia luzatzea edo eta laburtzea zenbait espezieren kasuan.

Hau honela, pagausoa ehizatzeke aldia martxoaren 15a arte luzatzea komenigarria dela uste dugu, ale ugari duen espeziea baita, ugaritasun horren ondorioz Europako iparraldeko herrietan arazoak sortzen ari dena.

Era bereran, basurdea ehizatzeke aldia laburragotu eta abenduaren 31n mugatu behar dela uste dugu, espezie honetako aleak gutxiagotzen ari direlako; are, urtarrilean basurdea ehizatzeak eragin bikoitza dauka, hil honetan baitaude basurde emeak ernari.

Esandako honengatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren aurrean ondorengo erabaki hau aurkezten dugu, eztabaidatu eta bozkatzeko:

“Nafarroako Gobernuak ehizarako debekualdiei buruzko Foru Agindua aldatuko du, honako irizpide hauek aintzat hartuz:

1.- Pagausoa, haitz-uso eta txoloma ehizatzeke aldia martxoaren 15a arte luzatuko da.

2.- Basurdea ehizatzeke aldia laburtu eta abenduaren 31n bukatuko da.”

Iruñean, 1996ko abenduaren 23an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

---

**F Saila:**  
**GALDERAK**

---

**Basozainei buruzko galdera***BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak basozainei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Begoña Errazti Esnal, "Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeari atxikitako Nafarroako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengoari idatziz erantzun diezaiotela eskatzen du:

- Gure Komunitatean zenbat basozain dagoen.
- Postuak non dauden eta zer herritan.
- Basozainaren eginkizunak.
- Zenbat basozain dagoen Aralarko mendietan.

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

**Lotzako putzuari buruzko galdera***JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Lotzako putzuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Berriogoitiko udalerrian Lotzako berroa dago, izen bereko kontzejuaren lurretan, hain zuzen ere.

Behinola Iruñerria osatu zuten ekosistemen adierazgarri diren natur baldintzak gorde dituen gutxietariko da alderdi hori.

Bereziki ur-hegaztiek darabilte Lotzako Putzua, geldigune edo atsedengune gisa, migrazio-ibilaldi luzeetan. Neguan, gure Komunitatean oso ohikoak ez diren beste espezie batzuei ere ematen die aterpe. Hortik aparte, landaretzari eta animaliei dagokienez, oso alderdi joria da.

Berriki, Lotzako herritarrek, lur horiei ahalik eta atarramendu gehien ateratzeko, haren belarren probetxamenduaren bidez, berroa zeharkatzen duten drenatzeko ubideak zabaltzeko obrei ekin diete.

Alde batetik, obra horiek, alderdiko abeltzaintza eta nekazaritza probetxamendu handiagoa posible egiten dutenek, Kontzejuaren diru-bizibiderako beharrezkoak diren dirusarrerak bermatzen dituzte. Baina, bestetik, Lotzako berroko ohiko baldintzak aldatu egin dituzte, haren natur ezaugarriak ere alda litezkeelarik.

Elkarte naturzainek eta talde kontserbazionistek salatu dituzte ekosistema-aldaketa horiek.

Horregatik, berriro ere, egoera batean gaude, non nekazaritza eta abeltzaintza erabilerak intereseko naturgune bat zaintzearekin bateragarri egin behar baitira.

Nafarroako Gobernuak, Ingurugiro Departamentuaren bidez, aurtengo urte honetako abenduaren 12an, bilera bat izan zuen Lotzako Kontzejuko herritarren ordezkariekin.

Bilera horretan, elkarrizketa atzeratu egin zen, harik eta bi aldeek, gaurko egoera konpontzeko negoziazioa baino lehen, beren proposamen zehatzak egin arte.

Gai horri buruz, galdera hauei erantzun dakiela eskatzen da:

1.- Zertan dautza zehazki Lotzako herritarrek ubideak zabaltzeko egin dituzten obrak?

2.- Zer kalte eragin diete berroko ohiko baldintzei? Atzera egiten ahal dira?

3.- Ba ote du Lotzako putzuak babes araubide berezirik?

4.- Zer legeria da alderdi horretan aplikatzen, bi erabilerak elkarrekin bateragarri egiteko?

5.- Hartu eta ateratzeko sistemaren kontrolaren bidez, posible da barradera bat egitea, alder-

dia zaintzeko behar den ur-mailari eusteko eta eurite garaian gehiegizko ura hustutzeko?

6.- Zer beste ekintzak konpon ditzake natur ingurunean eginiko kalteak eta alderdiko erabilerak elkarrekin bateragarri egin?

7.- Zer figurarekin aurreikusi asmo du Nafarroako Gobernuak nekazaritza eta abeltzaintza erabilerak, alde batetik, eta kontserbazionismoak eta naturzaintzak, bestetik, elkarrekin bateragarri egiteko?

8.- Horrelako obrak egitea beharrezkoa bada: zer neurri hartu beharko lirateke obren burutzeak espezie haiei kalte eragitea saihesteko? Hala bada, noiz hasi asmo dira obra horiek? Zein izan liteke burutzeko epea?

9.- Beste obrarik egin nahi bada, zer inbertsio beharko litzateke?

10.- Lotzako Putzuko alderdian erabilerak zehazki mugatzeak ba ote du ozteopo fisikorik?

11.- Ba ote dago asmorik belar probetxamendurik eskura dagoen azalera gutxitzeko? Zenbat hektareatan?

12.- Erraztuko ote zaio Lotzako Kontzejuari, kalteordainen edo bestelako konpentsazioen bidez, dirusarreraren gutxitzea?

13.- Zer irizpideren arabera ezarriko dira konpentsazio araubide horiek? Zenbat egingen lukete guztira?

14.- Ba ote du asmorik Nafarroako Gobernuak Lotzako Putzuko alderdia legez babesteko figurarik ezartzeko?

Iruñean, 1996ko abenduaren 19a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## **Oinarrizko Osasun Laguntzan gaiso diabetikoari arreta egiteko programari buruzko galdera**

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak Oinarrizko Osasun Laguntzan gaiso diabetikoari arreta egiteko programari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Ion Iñaki Erro Armendáriz, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Nafarroako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo galdera egiten du idatziz erantzun diezaioten:

Berrikitan aurkeztu du Nafarroako Gobernuak Oinarrizko Osasun Laguntzan Gaiso Diabetikoari Arreta Egiteko Programa.

Aurkezpen horretan, Osasun Kontseilariak adierazi du Programa horren helburu direla osasun laguntzako irizpideak parekatzea eta jarduera irizpideak bateratzea.

Era berean, Nafarroako Ospitaleko Endokrinologi Zerbitzuko Buruak esan du diabetea ez dela eritasun arrunta, ezta larritasun gutxikoa ere, Nafarroako biztanlegoaren % 3a eta 6a bitartean har ditzake (hau da, 15.000 eta 30.000 nafar bitartean). Orobat esan zuen diabetea benetako izurrite bihurtzen ari dela: 60 urtetik goitikoan %13a eta %20a bitartean har ditzake eta haurdun daudenetatik % 6a eta 12a bitartean. Kopuru horiek erakusten dute Osasunbideko Oinarrizko Osasun Laguntzako mediku bakoitzak diabetek jota dauden 60-80 gaiso inguru har ditzakeela.

Ildo horretatik, Nafarroako Ospitaleko Endokrinologi Zerbitzuko Buruaren arabera, diabetek eragindako itsumenduak diagnostiko goiztiarren bitartez saihas daitezke, dagokion sendabidea erabiliz gero.

Aitzitik, Osasun Kontseilariak esan zuen hemendik aurrera murriztu egingo direla diabeteari goiz antzemateko probak, eta kendu egingo zaizkiela sintomarik erakusten ez duten pertsoneri. Hemendik aurrera, zioen, diabeteari antzemateko

proba egiteko eskariak justifikaziorik ez baldin badu, laborategiek ez dute eskabide hori osasun prestazioen barruan hartuko.

Hartara, diabeteari goiz antzemateko probak osasun sistema publikotik at geratuko lirатеke, osasun publikoarendako arrisku handia, beraz.

Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Diabeteari antzemateko zenbat proba egin dira Nafarroako osasun sistema publikoan azkeneko hiru urteetako bakoitzean?

2.- Azkeneko hiru urteotan diabeteari antzemateko egin diren probetatik zenbatek izan du emaitza positiboa?

3.- Zer kostu ekonomiko izan dute aipatu probek azkeneko hiru urteotako bakoitzean?

4.- Osasunbideko Oinarrizko Osasun Laguntzako Zentroetako langileei galdetu al zaie zer irizti duten sintomarik gabeko pertsoneri diabeteari goiz antzemateko probak kentzeko neurriaz? Kontuan hartu behar da neurri horrekin langileen mediku-askatasunean muturra sartzen dela, nolabait. Baiezkoan, zer erantzun dute?

5.- Zer irizpide hartu ditu aintzat Nafarroako Gobernuak sintomarik gabeko pertsoneri diabeteari goiz antzemateko probak kentzeko neurria hartzeko, Nafarroako Ospitaleko Endokrinologi Zerbitzuko Buruak berak diabetearen ondorioei aurre egiteko neurria diagnostiko goiztiarra dela aitortu duen bitartean?

6.- Zer egunetan kenduko da proba hori Nafarroako osasun sistema publikotik?

Iruñean, 1996ko abenduaren 19a

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

## **Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren etorkizuneko Kontratuiei buruzko Legea prestatze-mailari buruzko galdera**

### *REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren etorkizuneko Kontratuiei buruzko Legea prestatze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

1.- Prestaketaren zer mailatan dago etorkizuneko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuei buruzko Legea?

2.- Zer eperen barruan aurkeztu ahalko da proiektua Nafarroako Parlamentuan, honek onar dezan?

Iruñean, 1996ko abenduaren 20an

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

---

## **Tamaina txikiko lursailak, aisialdiko baratzak deituak, erabili eta gozatzeari buruzko galdera**

**REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak tamaina txikiko lursailak, aisialdiko baratzak deituak, erabili eta gozatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

tzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Gizarteak tamaina txikiko lursailak, aisialdiko baratzak deituak, erabiltzea eta gozatea gero eta gehiago eskatzen duela uste dugularik, honako hau jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak halako erregistro moduko bat nolabait ezartzeari egoki irizten dion, bertan aisialdiko baratza erosteko asmoa duten pertsonak bilduko liratekeelarik.

2.- Nafarroako Gobernua halako proiektuak jasotzeko gertu dagoen, eta, proiektu hauek legeak ezarritakoa betetzen badute, dagokion Departamentuaren bidez onartuko ote dituen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 20a

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

---

## **CACECO instalazioen inguruei eta Club Atlético Osasunari buruzko galdera**

**REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak CACECO instalazioen inguruei eta Club Atlético Osasunari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía



**GALDERAREN EDUKIA:**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Diren inguruabarrak direla, CACECOren eta Club Atlético Osasunaren instalazioak oso gertu daude elkarrengandik, halako moldez non bat eta bakarra direla dirudien. Bitartean, enpresa hori bere eraikuntza berriak eta handiagotzea bukatzen ari da. Bestalde, bi instalazioak Iruñeko sarrerarik erabilienetako baten aldamenean daude.

Horregatik, jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak egoki ikusten duen CACECOri proposatzea bere instalazioen perimetroan zuhaitzondo gehiago para dezan. Zuhaitzondo hauek dauden zuhaitz-lerroak gehiagotzea

ekarriko lukete, eta horrela eragina leuntzen duen landare-estalkia indartsuagotuko litzateke.

2.- Nafarroako Gobernuak egoki ikusten duen CACECOri proposatzea hesi edo zuhaiska bat para dezan, Club Atlético Osasunak erabiltzen duenaren antzekoa.

3.- Nafarroako Gobernuak egoki ikusten duen CACECOren eraikuntza nagusiaren bolumena traetaeraren bat izan dezan, bere ikusizko eragina gutxiagotzeko asmoz.

4.- Nafarroako Gobernuak egoki ikusten duen Club Atlético Osasunari proposatzea CACECO-rantz doan errepidearen ondoko aparkalekua aldatzen duenean ikusizko eragin txikiagoa duen koloreko materiala erabil dezan, eta beste aparkalekuan dauden bezalako edo antzeko zuhaitzak landa ditzan.

Iruñean, 1996ko abenduaren 20an

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

**Eskola Kontseiluak osatzeko hautabideari buruzko galdera***REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Eskola Kontseiluak osatzeko hautabideari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA:**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau

egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Eskola Kontseiluak osatzeko hautabideari gagozkiola, bere iritzia jakin nahi dugu honi buruz:

1.- Komenigarria ote zen publizitate handiagoa egitea, bere helburuak eta eskumeneko gaiak zeintzuk diren adieraziz.

2.- Eskola Kontseiluetarako hautatuak izan direnei idatzizko azalpen bat ematea, bere helburuak eta eginkizunak zeintzuk diren adieraziz.

3.- Eskola Kontseiluetarako hauteskundeetan izan den parte hartzeari buruzko publizitate zehaztua egingo ote den, gutxienez parte hartu duten gurasoei buruzkoa.

Iruñean, 1996ko abenduaren 20an

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu



## **Iruñea-Lizarra N-111 errepideko 12-13 kilometroen arteko eskubiko bazterbidearen egoerari buruzko galdera**

*REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Iruñea-Lizarra N-111 errepideko 12-13 kilometroen arteko eskubiko bazterbidearen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako Gobernuak neurriren bat hartzeko asmoa ote duen Iruñea-Lizarra N-111 errepideko 12-13 kilometroen arteko eskubiko bazterbidean dagoen hartxintzar ugari, ofita edo dena delakoa kentzeko.

Iruñean, 1996ko abenduaren 20an

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

## **Errepideetan dauden merkataritza-adierazleei buruzko galdera**

*REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak errepideetan dauden merkataritza-adierazleei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako errepideetan bada zenbait adierazle bertikal merkataritza-establezimendu batzuetan

iristeko norabidea adierazten duena. Honek merkataritza-konkurrentzia mailako egoera bat sorrarazten du, adierazle hauek norabide hartan dauden izaera bereko establezimendu guztiak hartu beharko bailituzkete bere baitan.

Horregatik jakin nahi da:

1.- Zergatik agertzen da establezimendu jakin bat eta ez beste batzuk?

2.- Nafarroako Gobernuak erabilgarriak direla uste al du? Eta, mantendu nahi baditu, ez al zaio iruditzen ofizialak ez bezalako adierazleak erabili beharko lirakeela, kostua esandako enpresen lepora joanik?

3.- Ea uste duen Nafarroako Gobernuak aipatu enpresek kopuru sinboliko edo bestelakoren bat ordaindu beharko luketeela adierazlea han egoteagatik.

Iruñean, 1996ko abenduaren 20an

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

## **Interneten bidezko zenbait informazio pornografikoz biztanleriari ohartarazteko neurriei buruzko galdera**

*REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak interneten bidezko zenbait informazio pornografikoz biztanleriari ohartarazteko neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu

Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Interneten bidez informazio pornografikoa zabaltzen dela dioten albisteen aurrean, eta, beste hainbat medio zibernetikotan zabal litekeen aurrean, jakin nahi da:

Nafarroako Gobernuak biztanleriari eduki horiei buruz ohartarazteko neurriren bat hartzeko asmoa ote duen, baita zabaltzea galarazteko ere, hau teknikoki ahalezkoa bada.

Iruñean, 1996ko abenduaren 20an

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

## **Telefonia mugikorraren instalazioei buruzko galdera**

*REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak telefonia mugikorraren instalazioei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu

Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Egokia iruditzen ote zaion, bere baliabidez edo beste hainbat departamenturen lankidetzaz, irizpideak ezartzea, lurzoru ez urbanizagarrian paratzen ari diren telefonia mugikorraren instalazioen ikusizko eragina gutxiagotzeko, zerbitzua eta funtzionamendua kaltetu gabe eta, ahal den neurrian, dauden inguruan poliki txertatuz.

Iruñean, 1996ko abenduaren 20an

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

## **Egin berri diren nekazaritza bideek sortzen duten ikusizko eraginari buruzko galdera**

### *REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak egin berri diren nekazaritza bideek sortzen duten ikusizko eraginari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### **GALDERAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu

Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Egin berri diren nekazaritza bideek sortzen duten ikusizko eragin handia ikusirik, jakin nahi da:

Nafarroako Gobernuak asmoa ote duen eskatzeko hurrengo proiektuetan kolore ez hain eraso-korrek eta inguruan hobeki txertatzen direnak erabil daitezela, bai eta zuhaiskak eta zuhaitzak gehiago erabil daitezela bideko muturretan.

Iruñean, 1996ko abenduaren 20an

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

## **Udalek telefonia mugikorreko instalazioak paratzeko lurzorua uzteari buruzko galdera**

### *REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak udalek telefonia mugikorreko instalazioak paratzeko lurzorua uzteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### **GALDERAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Ba ote dakien udalak telefonia mugikorreko instalazioak paratzeko bere lurzorua uzteagatik preziorik jasotzen ari diren edo ez.

Iruñean, 1996ko abenduaren 20a

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

## Agustinosen industri poligonoan sortzen ari den zabortegiari buruzko galdera

*REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Agustinosen industri poligonoan sortzen ari den zabortegiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Reyes Cortaire Tirapu

Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako Gobernuak kontsideratu ote duen neurriren bat hartzea Iruñerrian, Agustinosen industri poligonoan, errepedeko bide zentratean, Etxauritik doan Iruñea-Lizarra errepedearekin bat egin lezakeen unean, Orkoiengo bentatik hurbil, sortzen ari den zabortegi berriari buruz; bai zuzenean, bai S.E.P.E.S delakoaren bidez.

Iruñean, 1996ko abenduaren 20an

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

## Eperrarekin zerikusirik duten hainbat gorabeherari buruzko galdera

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak eperrarekin zerikusirik duten hainbat gorabeherari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

1.- Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Zerbitzua eperrari buruzko azterketak egiten ari al da?

2.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak Nafarroako hainbat aldetan, lehengo urteetan eperraren hazi-toki nardoak zirenetan (adibidez Galipentzu, Caseda, Uxue, San Martín Unx...), gero eta eper gutxiago dagoela?

3.- Esan beza Nafarroako Gobernuak zer datu duen eper gutxiago izateko arrazoi hauei buruz:

– Ugaltzaile falta

– Eper antzuak

– Arrano, azeri, pika eta suge... gehiegi izatea.

4.- Zer herbizida eta pestizida daude baimenduta nekazariak euren alorretan erabiltzeko, eta zer klasetako dira?

Iruñean, 1996ko abenduaren 23an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## Ingurugiro Departamentuko biologoek dauzkaten eginkizunei buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Ingurugiro Departamentuko biologoek dauzkaten eginkizunei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erre-

gelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

1.- Espezie bakoitzeko aleak zenbatzeaz aparte, zer beste eginkizun daukate Ingurugiro Departamentuko biologoek?

2.- Aztertzen dute biologo horiek zenbait espezieren, eperra kasu, beheratze larria?

3.- Ba al dute Ingurugiro Departamentuak eta bere biologoek ehiztari elkarteekin eta nekazaritza elkarteekin batera aurrera eraman beharreko jardun-planen bat?

Iruñean, 1996ko abenduaren 23an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## Zenbait uso-espezieren ehizialdiari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak zenbait uso-espezieren ehizialdiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera

hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

1.- Europako iparraldeko hainbat herrik jasaten duen uso izurritea ezaguturik, zer arrazoi dago Nafarroako ehiztariantzat pagausoa, haitz-usoa eta txoloma botatzeko ehizialdiak abendutik martxora arte ez irauteko?

2.- Hainbat aldetan uretako hegaztiak nola ugaritu diren, ia izurritea izatera iritsi direlarik, ikusirik, zer arrazoi dago Nafarroako ehiztariantzat uretako hegaztiak botatzeko ehizialdiak urtariletik otsailera arte ez irauteko?

3.- Nafarroan lizentzia duten ehiztariak asko direla jakinik, zergatik jartzen dizkio Ingurugiro Departamentuak hainbeste administrazio-oztopo hiritar talde honi?

Iruñean, 1996ko abenduaren 23an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## Basurdearen ehizaldiari buruzko galdera

### ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak basurdearen ehizaldiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

na Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

1.- Nafarroako Gobernuak ezagutzen duelarik basurdearen hazialdiak zeintzuk diren eta horiek baino lehenagoko aldiak basurde emeak ernari daudela, nola baimentzen da basurde ehizatzea aldi hauetan?

Iruñean, 1996ko abenduaren 23an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

### GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana

## Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez "Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko urriaren 31ko 58 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko azaroaren 27a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

"Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.a.- Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak, joan den urriaren 22an egindako parlamentu-agerraldian, azaldu zituen Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren xedeak. Era berean, horiek adierazten zituen agiria, "Hizkuntza politikaren jarduketara ildoak" titulupean, banatu zitzaizen parla-

mentari jaun-andreei. Aipatu agerraldi eta agirira jotzen dugu.

b.- Aipatu Zuzendaritza Nagusia banatu den zerbitzuei eta horien eginkizunei gagozkielarik, aipatu behar da informazio hori Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren egitura organikoa finkatzen duen irailaren 26ko 394/1996 Foru Dekretuan bilduta dagoela (1996ko urriaren 7ko 122 zk.ko NAO), horren 2.3 eta 19.etik 23.era bitarteko artikuluetan. Foru Dekretu horretara jotzen dugu.

2. Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak urtean zehar egiten dituen laguntza ekonomikoetarako deiak ikusten baldin badira, NAOan argitaratu dira guztiak, ikus daiteke dirulaguntzak emateko irizpideak hauek direla, funtsean:

– Eskariak deiaren xedearekin duen lotura.

– Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren jarduketa-eremu bereziarekin zerikusia duten jarduerak.

– Eskarian agertzen den proiektuaren izaera eta nolakotasunak.

– Irabazasmorik ez izatea.



Gero, deialdi bakoitzean irizpide bereziak ager daitezke. Esate baterako:

– Komunikabideetan euskara erabiltzeko laguntzetarako deia (martxoaren 27ko 386/1996 Foru Agindua, 5. oinarria) a)... Eskualde edo eremu geografiko zabal baterako proiektu bateratuek lehentasuna izanen dute. b) Nafarroako herritarren artean duen hedapena...d) Euskara batua edo Nafarroako euskalkietako bat zuzen eta modu egokian erabiltzea...

– Nafarroako Gobernuarekin 1994ko martxoaren 15eko Lankidetzaren Hitzarmena sinatu zuten toki entitateendako 1996. urterako laguntzak ematea (martxoaren 26ko 384/1996 Foru Agindua). Kultur ekintzetarako kopurua hurrengo arabera finkatzen da: biztanle kopurua, dispersio geografikoa, eta udal euskara-zerbitzuaren teknikarien kopurua (Eraskinaren 3. puntua). Euskarazko prestakuntza planarendako hartzen den eredia ekainaren 21eko 195/1993 Foru Dekretua da.

Gainera, deialdietan parte hartzeko baldintzak ere badira berez irizpide bat, orokorragoa izan arren. Ildo horretatik aipa daitezke:

– Nafarroan helbidea duten pertsona fisiko edo juridikoak izatea (kultura jarduerak).

– Nafarroan argitaratzea edo Nafarroan edizio berezia izatea (komunikabideak).

– Zerga betebeharrak beteta izatea.

– Kopurua eta portzentaiaren arabera mugaturiko dirulaguntza.

– eta abar.

Deialdietan sartuko diren aldaketak Gobernuak egun aztertuko duen laguntza eta dirulaguntzei buruzko arauketa orokorraren menpe daude.

3.- Urriaren 22an izandako agerraldian finkatu ziren Departamentuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez jarduteko ildoak. Datozen bi urte eta erdietan zehar garatu beharko liriteke aipatu jarduketa programak. Ezinezko da galderak eskatzen duena erantzutea, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren kudeaketaren emaitza baita eta hogeita hamar egun eskas baino ez dira igaro zuzendari hori bere postuaz jabetu zenetik.

4.- 1995eko abenduaren 18an Gobernuak onartu egin zuen "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eremuan hizkuntz normalizazioa hobetzeko plana". "Herritarrari zerbitzuak ematea" izeneko atalak administrazio-zirkuitu elebidunak direla euskarazko zerbitzuak modu eraginkorrean ematea razionalizatu eta bermatzeko tresnarik

egokienetakoa direla esan ondoren, zirkuitu elebidunak definitzen ditu eta horien ezartzeko aldiak finkatu.

5.- Administrazioak herritarrei jaramon egiteko aipatu irizpideak indarreko legedian daude finkatuta, eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari ezarri egiten zaio legeria hori, bete behar duen neurrian, Zuzendaritza horrek, bere eskumenen esparruan, betearazi ere egin behar duelarik. Euskarari dagokionean, Hobekuntzaren bederatzigarren artikulua dugu arau nagusi. Hori garatzeko:

– Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea.

– Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 135/1994 Foru Dekretua.

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eremuan hizkuntz normalizazioa hobetzeko plana, 1995eko abenduaren 18koa.

Beste alde batetik, Kontseilaria urriaren 22an egindako agerraldian aurkeztu ziren hizkuntza politikako jarduketa ildoak eta beren beregi aipatu zen "zerbitzu nagusietan behar bezala taxutu eta neurtutako administrazio-zirkuitu elebidunak ezarriko zirela, herritarrek eskatu zerbitzuei behar bezalako arreta egiteko".

– Ikasteko erabiltzen den metodoa Administrazio Publikoen Euskalduntze Zentroari dagokio. Zentro hori Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzaren Programazio eta Ikerketa Zerbitzuari atxiki zaio, Zerbitzuaren helburu nagusia delarik Foru Komunitateko Administrazioetako funtzionarioen euskarazko prestakuntza eta gaikuntza planak sortzea.

– Ematen diren ikastaro-mota ezberdinen berezitasuna kontuan izanik (egunero bi orduko estentsiboak, 280 ordu guztira; teknikoak, 40 ordu; sei orduko trinkoak, 120 ordu guztira (urritik ekainera eta udan); birziklatzekoak, egoera bakoitzari egokitzen zaizkionak), zaila da unitate bakoitzeko benetako denbora zein den jakitea, baina klaseko eta unitateko 120 ordu izan daiteke, orokorrean.

– Kostu ekonomikoari gagozkiolarik, Estatuko Administrazio zentralarekin izenpeturiko akordioan, Estatuak Nafarroan duen Administrazioari atxikitako langileak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusi honek ematen dituen ikastaroetara joatea ahalbideratzeari buruzkoan, oinarrituriko urteko fakturazioak emango liguke horri buruzko erreferentzia. 1993tik aitzina fakturatzen den balioetsitako kostua orduko eta ikasleko 280



pezeta da, kontuan izanik kopuru horren barruan irakasle eta administrazio langileen gastuak sartzen direla, baina ez mantenimendu gastuak.

– Legez, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio funtzionario publikoen oposizio-etarako deiak egitea eta deien oinarriak zehaztea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluek xedaturikoa betez.

Iruñean, 1996ko azaroaren 25a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Tafallatik igarotzen den Nafarroako Autobideko zatiari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tafallatik igarotzen den Nafarroako Autobideko zatiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko azaroaren 8ko 59 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontsilariak, hau izenpetzen duenak, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Autobideari buruz egindako galderari dagokionez, erantzuna hau jakinarazi nahi du.

1.- Noiz burutuko diren garitak kentzeko lanak, Nafarroako autopistako hego loturan daudenak, hura Tafallan barna iragatean.

Esan beharra dago, 1987ko maiatzaren ezarriko Hitzarmenaren eta haren eraskinaren arabera, garitak kentzeko asmorik ez dagoela.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak berehala Lan Talde Tekniko bat osatuko du, Audenasaren eta Nafarroako Gobernuaren ordezkariak bilduko dituena. Horrek, besteak beste, gai hori aztertuko

du eta egokien den konponbidea aurkitzen saiatuko da, epe laburrean burutu ahal izateko.

2.- Noizko egin asmo zaien aurre autopistako tarteko hego lotura aldatzeko lanei.

Gaur egun esan daiteke Autobidean Tafallan sartzeko hego lotura horrek normalki funtzionatzen duela.

Hala ere, Audenasak eta Nafarroako Gobernuak osatuko duten Lan Talde Teknikoak, lehen aipatu denak, gai hori ere aztertuko du.

3.- Noizko espero den Nafarroako autopistako ipar loturari, Tafallan barna iragatean, konponbidea emateko baldintza teknikoak izatea, behar den proiektua eginik.

Gaur egun, esan daiteke Nafarroako Autobidean Tafallan sartzeko ipar loturak ere normalki funtzionatzen duela eta, eginiko konponketak egin eta gero, errepide sareko puntu beltzetariko bat izatetik gelditu dela.

Hala ere, gai hori ere aztertuko du Audenasak eta Nafarroako Gobernuak osatu beharreko Lan Talde Teknikoak, lehenengo erantzunean aipatu den berak.

Hau jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduko 181. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti.

---

**G Sails:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

**Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko bi lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa**

**Gainditu dutenen zerrenda**

1996ko azaroaren 1eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko bi lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko, horietako batek ezinbesteko duelarik euskaraz jakitea, deialdiko zazpigarren Oinarriko 1 atalak ezartzen duenarekin bat etorritik, lehiaketa bukatu eta Epaimahai kalifikatzaileak bidali duelarik izangaien zerrenda ordenatua, bakoitzak lortu duen puntuazioarekin,

ERABAKI DUT

**Lehen.**- Aipatu lehiaketa gainditu duten izangaien zerrenda, bakoitzak lortu duen puntuazio osoarekin, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea:

Izena	Puntuazio osoa
IRIGOYEN OLAIZ, Lourdes	15,86
MURUZABAL VALENCIA, Jesús Angel	12,58
VILLANUEVA BAQUEDANO, M <sup>a</sup> Luisa	12,01
URRA PAGOLA, Bernarda	11,25
JUANIZ LARRAÑEGUI, Ana M <sup>a</sup>	11,09

**Bigarrena.**- Adieraztea ezen lehiaketa hau gainditu duen izangai bakar batek ere ez duela lanpostu huts hau eskuratzeko ezinbesteko baldintza den euskararen ezagutza-maila erakutsi.

Iruñean, 1996ko abenduaren 30a

Lehendakaria: Javier Tuñón San Martín





